

BALOREZKO PROPOSAMENA

Taldea bost pertsonen osatzen dugu: Aiora Tolaretxipi, Irati Martinez, Naia Arozamena, Lier Bergaretxe eta Kattalin Elustondo. Sortu nahi dugun enpresak *Pausoz, pauso!* izena du. Hainbat ideia izan ditugu, baina aukera guztiak baloratu ondoren, gure taldearen proposamena honako hau da: beharra duten pertsonen laguntzeko enpresa bat sortzea.

Jakina da, gaur egungo gizartean, jaiotza tasa geroz eta txikiagoa dela, hots, azkeneko hamarkadetan haur gutxiago jaiotzen ohi da. Pertsona helduen kasuan, aldiz, guztiz kontrakoa gertatzen da, geroz eta zahar gehiago baitaude. Ukaezina da, pertsona helduek askotan haien beharrak asetzeko arazoak izaten dituztela, eta familiak dira haiei laguntzeaz arduratzen direnak. Askotan honek arazo bat suposatzen du, azken finean badira familia asko harreman onik ez dutenak eta laguntzeko prest ez daudenak, edo laguntzeak karga handi bat suposatzen dien familiak. Hare gehiago, asko dira familia ez dutenak ere.

Beraz, gure gizartean nagusitzen den arazo honi irtenbide bat ematea da gure helburua, horregatik, gure ustez ideia bikaina da haien beharrak asetuko dituen enpresa bat sortzea. Besteak beste, askok erosketak etxera eramateko zailtasunak izaten dituzte eta badira ere paseatzeko laguntza nahi dutenak, edota eskailerak igotzeko laguntzaile bat behar dutenak. Hala ere, badakigu ez direla pertsona helduak bakarrik horrelako beharrak asetzeko laguntza behar dutenak. Adibidez, behar bereziak edo gabeziaren bat dutenek ere gure enpresara laguntza eske jo dezakete edo beste edonork.

Erreterian, Oiartzunen eta inguruko herrietan ez dago horrelako zerbitzurik eskaintzen duen enpresarik. Egia da, kasu batzuetan, dependentzia oso handia denean, egoitzetara joan behar izaten dutela, egunerokotasunean etengabe laguntza behar dutelako. Baina ez dira behar txikiagoak betetzen laguntzen duten enpresak, eta gure ustez oso garrantzitsua da honetan laguntzea.

Gure enpresak ekonomikoki suposatuko ligukeen esfortzuari dagokionean, egia da enpresa bat zerotik sortzea erronka handia dela. Hala ere, izango genituzkeen gastu bakarrak langileei ordaindu beharreko soldatak izango lirateke. Izan ere, gure enpresaren bidez jende asko lagundu badezakegu ere, beharrezkoak diren baliabideak ez dira garestiak. Zera esan nahi dugu, erosketak etxera eramaten laguntzeko, edota paseatzera norbaitekin joateko, ez dugu esfortzu ekonomiko handirik egin behar. Egia da lokal baten erabilera beharrezkoa dela langileak bezeroekin komunikatzeko, eta eguneroko plangintza antolatzeko. Zorionez, dagoeneko badugu lokal bat, erosita, erabilerarik ematen ez zaiona. Hori dela eta, bertan bideratu genezake gure enpresa eta bide batez lokalari probetxua eman. Beraz, esan genezake inbertsio aldetik ez dugula gastu handirik aurreikusten eta hori enpresaren hastapenerako lagungarria izango dela.

Dena dela, gure bezeroak helduak izanik, haiengana iristeko komunikazio bidea topatzea da gure enpresak izango lukeen oztopoa eta horren aurrean lanketa garrantzitsua burutzea ezinbestekoa izango da. Hortaz, bezeroen konfiantza eta hauekin komunikatzeko modua lortzea izango da gakoa.

Azkenik, gustatuko litzaiguke, denboraren poderioz, gure enpresa handitzea eta horrela beste biztanleek izan ditzaketen beharretan ere laguntzea. Esan bezala, gure enpresara edonor etor liteke laguntza eske eta gu laguntzen ahaleginduko gara, baina batez ere pertsona helduengan pentsatuz sortu dugu, haiek baitira egunerokotasunean egin beharreko edozertan dependentzia izan dezaketenak.